



ADIKZIOEI BURUZKO EAE-KO INKESTA 2017

Kalamuaren kontsumoari buruzko monografikoa

Laburpena

1. Azterlanaren justifikazioa

Kalamua da *Cannabis sativa* izeneko landarearen prestakinak izendatzeko gehien erabiltzen den termino orokorra. Landare horrek 750 konposatu kimikotik gora ditu, besteak beste, *tetrahidrocannabinola* (THC). Hori da, hain zuzen, kalamuaren osagairik ezagunena eta psikoaktibitate handiena duena. THC kantitatea aldatu egin daiteke zenbait faktoreren arabera (besteak beste, landarearen barietatea, landarea biltzeko erabilitako metodoa, lantzeko modua, kontsumitutako atala), eta horrek, aldi berean, kalamutik eratorritako produktu ezberdinak sortzen ditu (esaterako, marihuana, haxixa eta haxix-olioa).

Kalamua da medikuntza-helbururik gabe gehien laboratzen den legez kanpoko substantzia psikoaktiboa, hala nola kontsumituena eta trafikatuena munduan, eta oso urruti dago kokaina eta beste opiazeo batzuetatik. Ekonomiari erreparatuta, substantzia horrek kokainak eta legez kanpoko beste droga batzuek baino merkatu-prezio baxuagoa du. Gainera, erraz eskura daitekeela dirudi, eta arriskuaren pertzepzio-maila baxua du. Horren guztiaren ondorioz, substantzia hori legez kanpoko substantziarik ohikoenen eta herritarren artean gehien zabaldua daudenen artean dago. Kalamua behin eta berriz kontsumitzearen ondorioei dagokionez, ugari dira osasunaren kontrako ondorioak dituela dioten ikerketak, osasun fisikoari, psikikoari eta sozialari dagokionez, bereziki nerabeen eta gazteen artean, substantzia psikoaktiboek eragin negatibo handiagoa dutelako burmuina garapen-fasean dagoenean.

Gaiaren egungo egoerari dagokionez, azken urteotan handitu egin dira kalamuaren erabilera terapeutiko eta ludikoarekin lotutako alderdiek komunikabideetan eta eztabaida publiko eta politikoan duten presentzia, baita substantzia hori kontsumitzen dutenen kontsumitzaile-elkarteak erregulatzearekin zerikusia duten alderdiena ere.

Monografiko honek espezifikoki aztertzen du 15 eta 74 urte bitarteko gizarteko talde ezberdinen kalamu-kontsumoa, eta kalamuaren kontsumoaren prebalentziaren maiztasunaren eta intentsitatearen ikuspegi orokorra eskaintzen du. Halaber, ikerketa honek ahalbidetu egiten du herritarrek kalamuaren kontsumoari dagokionez dituzten jarrerak eta pertzepzioak ezagutzea, baita arlo horretako politika interesgarri jakin batzuen gainean duten iritzia ere. Ikerketa monografikoaren indarguneetako bat da substantzia horren kontsumoaren azken 25 urteetako bilakaera eskaintzen duela.

2. Helburuak eta metodologia

Ikerketa honen helburu nagusia kalamuaren kontsumoaren prebalentzia eta kontsumo-ereduak, gizarte-taldean arabera banaketa, bilakaera, joera nagusiak eta haren gaineko pertzepzioa eta gizarte-balorazioa identifikatzea izan zen.

Informazio-iturria Adikzioei buruzko EAEko Inkesta izan zen, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak egiten duena –lehenengo Euskadi eta Drogak–, eta 2014-2017 Euskal Estatistika Planean sartuta dagoena. Langile trebatuek etxe egindako inkesta bat da, eta hainbat adikzio –substantziekin edo substantziarik gabe– 15 eta 74 urte arteko euskal biztanleen artean duten prebalentzia ezagutzea du helburu, baita droga-kontsumoarekin eta adikzioekin zerikusia duten hainbat gairen gainean duten pertzepzioa eta balorazioa ere. 1992an egin zen lehen inkesta, eta orduetik hamabi edizio egin dira. Gaur egun, adikzioen arloko inkesta zahar eta kontsolidatuetako bat da estatu-mailan.

Bi analisi-metodo osagarri erabili ditugu ezarritako helburuak lortzeko.

- Lehenik, kalamuaren kontsumoarekin lotutako aldagai nagusien azterketa deskriptibo bat egin da, bai eta herritarrek substantzia horren kontsumoari buruz duten pertzepzioa eta arlo horretako politika jakin batzuen gainean duten iritzia biltzen dituzten aldagaiena ere. Kontsumoaren prebalentzia orokorre (bizitzan zeharrekoa, azken 12 hilabeteetako, azken 30 egunetako eta egunerokoa) eta kontsumo horrekin zerikusia duten aldagai nagusiei dagokienez (kontsumoen intentsitatea eta maiztasuna, autopertzepzioa, eskuratzeko erraztasuna, normalizazioa, substantzia lortzeko moduak eta gizarte-pertzepzioa), metodo zuzena eta 2017ko urtarrilaren 1ean EINEk emandako EAEko biztanleria orokorraren datua erabili dira adinaren arabera prebalentzia estandarizatuak kalkulatzeko. Analsiak sexuaren arabera bereizi dira, eta prebalentzia orokorren kasuan, baita ikasketa-mailaren arabera ere.
- Bigarrenik, azterketa deskriptibo hori osatu egin da intereseko aldagaiek kalamuaren kontsumoan duten eraginari buruzko azterketa esplikatibo batekin. Analsi hori egiteko, lehenik eta behin, khi karratuaren proba egin da, % 95eko esangura-mailarekin ($\alpha \geq 0,05$). Bigarrenik Odds Ratio (OR) deritzonak kalkulatu dira bizitza osoko, azken 12 hilabeteetako, azken 30 egunetako eta eguneroko kontsumoetarako, baita kalamuaren normalizaziorako ere. Horretarako, erregresio logistikoko ereduak erabili dira, sexuaren, ikasketa-mailaren eta adin-tarteen arabera berezita. Sexuaren eta ikasketa-mailaren kasuan, erregresio-ereduak adinaren arabera ezarri dira, modu horretan aldagai hori nahasmendu-faktore gisa kontrolatu ahal izateko.


3. Emaiza nagusiak

3.1. Kalamu-kontsumoaren prebalentzia orokorrak, sexuaren, adinaren eta ikasketa-mailaren arabera

2017an, kalamua da oraindik ere euskal biztanleen artean prebalentziarik handiena duen legez kanpoko substantzia. 15 eta 74 urte bitarteko hamar pertsonatik lauk adierazi zuten inkestan noizbait kontsumitu dutela kalamua, % 8,6 azken urtean kontsumitu dutela eta % 4,9k azken hilabetean egin dutela. Ia egunero kontsumitzen dutela onartu duten herritarren proportzioa % 2koa da bakarrik.

Kontsumoaren prebalentziak altuagoak dira gizonen artean emakumeen artean baino, aztertutako adierazle guztietan. Gainera, generoaren arabera ezberdintasunak handitu egiten dira erlatiboki zenbat eta prebalentziak berriagoak izan.

1. koadroa. Kalamu-kontsumoaren prebalentziak adinaren arabera estandarizatuta. 2017 (%). Biztanleria osorako emaitzak eta sexuaren arabera banatutako emaitzak.



* Eguneroko kontsumoa: ia egunero kontsumitu izana (gutxienez astean 4 egun) azken 30 egunetan.
 Iturria: Adikzioei buruzko EAEko Inkesta, 2017, eta EINen 2017ko urtarrilaren 1eko biztanleria-errola.

Adinari erreparatuta, agerian geratu da kalamuaren kontsumoa gazteen artean dela nagusi, eta 35 urtetik aurrerako oso pertsona gutxik kontsumitzen dutela momentuan eta egunero. Gizonen kasuan, momentuko kontsumoaren puntu gorena (azken 30 egunetan) 20 eta 24 urte bitarteko biztanleria-taldean dago, eta apurka-apurka murrizten doa 25 urteetatik aurrera. Emakumeen kasuan, kontsumoaren prebalentziarik handiena beranduago hauteman da; zehazki, 25 eta 29 urte bitartean.

2. koadroa. Kalamu-kontsumoaren prebalentzia orokorrak, adin-taldeen eta sexuaren arabera, 2017 (%).


Guztizkoa	15-19	20-24	25-29	30-34	35-44	45-54	55-64	65-74
Bizitzan noizbait	36,5	56,1	62,4	57,5	50,3	40,8	30,0	8,4
Azken 12 hilabeteak	24,0	26,6	25,5	12,0	7,8	5,2	3,7	0,4
Azken 30 egunak	9,9	16,1	16,1	7,1	4,2	2,4	2,9	0,4
Egunero*	3,6	4,1	4,7	2,9	2,4	1,1	1,8	0,0
Emakumeak	15-19	20-24	25-29	30-34	35-44	45-54	55-64	65-74
Bizitzan noizbait	30,1	41,1	52,7	51,8	43,6	29,7	21,2	4,8
Azken 12 hilabeteak	19,7	14,7	19,0	8,7	3,7	3,4	2,6	0,0
Azken 30 egunak	5,9	7,7	8,8	4,5	2,2	0,8	1,0	0,0
Egunero*	2,1	0,9	0,0	2,2	1,7	0,0	0,0	0,0
Gizonak	15-19	20-24	25-29	30-34	35-44	45-54	55-64	65-74
Bizitzan noizbait	43,2	71,6	71,2	63,1	57,0	51,1	39,2	12,6
Azken 12 hilabeteak	28,4	38,9	31,3	15,3	11,9	6,9	4,9	0,9
Azken 30 egunak	13,9	24,7	22,7	9,6	6,2	3,9	4,9	0,9
Egunero*	5,3	7,4	9,0	3,5	3,0	2,1	3,6	0,0

* Eguneroko kontsumoa: ia egunero kontsumitu izana (4-6 egun) azken 30 egunetan.

Iturria: Adikzioei buruzko EAeko Inkesta, 2017.

Kalamua noizbait kontsumitu dutenen arteko prebalentzia handiagoa da goi-mailako ikasketak dituztenen artean, emakumetan nahiz gizonetan. Alabaina, azkenaldian kontsumitu dutenen prebalentzia, esaterako, egunero kontsumitzen dutenen prebalentzia, handiagoa da sexu bien kasuan ikasketa-maila baxuago dutenen artean, eta gauza bera gertatzen da azken 12 hilabeteetan eta 30 egunetan kontsumitu duten emakumeen prebalentziarekin.

3. koadroa. Kalamu-kontsumoaren prebalentziak adinaren arabera estandarizatuta, eta sexuka eta ikasketa-mailaka bereizita. 2017 (%)



*Adinaren arabera estandarizatutako datuak

** Eguneroko kontsumoa: ia egunero kontsumitu izana (4-6 egun) azken 30 egunetan

Iturria: Adikzioei buruzko EAeko Inkesta, 2017, eta EINen 2017ko urtarrilaren 1eko biztanleria-errola.

3.2. Kalamu-kontsumoaren prebalentzia orokorren bilakaera

2017ko datuek agerian utzi dute 2006ko beheranzko joera hautsi duen gorakada bat egon dela. Bizitzan zeharreko kontsumoa % 28,3tik % 39ra igaro da, eta orain arteko marka historikoa hautsi du. Neurri batean, gaztaroa kalamuaren presentziarik gabe bizi izan zuten belaunaldiak progresiboki desagertzen ari direlako izan daiteke hori. Azkenaldiko kontsumoa ere handitu egin da, zehazki, % 6,3tik % 8,6ra igo da, eta neurri txikiagoan bada ere, momentuko kontsumoak ere gora egin du: % 4,3tik % 4,9ra igo da. Halaber, eguneroko kontsumoaren prebalentzia erlatiboki egonkor mantendu da: 2012an % 1,7koa zen eta 2017an, berriz, % 2koa. Azken horri dagokionez, zenbait ezberdintasun hauteman daitezke generoaren arabera, eta emakumeen artean datuak aldatu ez badira ere (% 0,7 eta % 0,8 artean mantendu da), gizonen artean % 2,4tik % 3,3ra igaro da.

4. taula. Kalamu-kontsumoaren prebalentzia orokorrak sexuaren arabera (%).

		1992	1994	1996	1998	2000	2002	2004	2006	2008	2010	2012	2017
Gutzizkoa	Noizbait	22,9	22,6	28,6	24,4	26,8	27,6	31,7	36,2	33,8	34,2	28,3	39,0
	Azken 12 h.	6,5	5,5	4,9	-	8,4	12,2	12,0	14,0	12,0	10,4	6,3	8,6
	Azken 30 eg.	3,2	3,4	3,8	4,4	5,5	8,9	9,0	11,0	8,7	7,2	4,3	4,9
	Egunero	0,5	0,9	1,9	1,3	1,5	1,9	4,1	3,8	3,9	2,5	1,7	2,0
Emakumeak*	Noizbait	11,6	12,0	15,3	15,0	18,0	18,9	20,5	25,6	22,9	25,2	21,0	31,1
	Azken 12 h.	2,6	1,6	1,4	-	4,1	7,1	5,8	8,6	6,6	6,7	3,6	5,6
	Azken 30 eg.	0,7	0,9	1,2	1,8	2,6	4,6	3,8	6,4	3,9	4,0	2,1	2,4
	Egunero	0,1	0,2	0,3	0,4	0,4	0,6	1,0	1,8	1,3	1,0	0,8	0,7
Gizonak*	Noizbait	21,6	21,8	29,1	26,0	26,4	29,5	33,5	39,1	38,7	39,5	32,8	47,5
	Azken 12 h.	5,1	5,4	4,6	-	8,1	12,0	13,0	14,2	13,9	12,2	8,0	11,7
	Azken 30 eg.	2,7	3,2	3,4	4,5	5,3	9,3	9,8	11,4	10,8	9,0	5,8	7,4
	Egunero	0,5	0,8	2,1	1,3	1,7	2,4	4,9	4,3	5,0	3,3	2,4	3,3

*Azken 30 egunetan astean gutxienez 4 eguneko maiztasunarekin kontsumitu izana hartuko da eguneroko kontsumo gisa.

*Adinaren arabera estandarizatutako datuak.

Iturria: Adikzioei buruzko EAEko Inkesta, 2017, eta EINen 2017ko urtarrilaren 1eko biztanleria-errola.

3.3. Kalamu-kontsumoen intentsitatea: kontsumoa bizitza osoan zehar

Nahiz eta 2017an biztanleen ehuneko altu batek esan zuen kalamua noizbait kontsumitu zuela bizitzan (% 39), horien % 20k bakarrik (biztanleriaren % 7,8k) adierazi zuen 100 aldiz edo gehiago kontsumitu zuela bizitza osoan zehar.

Kasu horretan ere oso garrantzitsuak dira generoaren araberako ezberdintasunak: beren bizitza osoan zehar kalamua 100 aldiz baino gehiago kontsumitu izan duten gizonen prebalentzia (% 12) emakumeena baino lau aldiz handiagoa da (% 3,6).

4. koadroa. Biztanleria osoaren banaketak, beren bizitzan zehar kalamua kontsumitu duten aldien arabera, sexuka, adin-tarteka eta ikasketa-mailaka berezita. 2017 (%)

	Ez du inoiz probatu	Kontsumoaren intentsitatea				Gutzizkoa
		1-10 aldiz	11-50 aldiz	51-100 aldiz	100 aldiz baino gehiago	
Gutzizkoa	61,0	20,6	7,8	2,8	7,8	100,0
Sexua						
Emakumeak	69,4	20,2	5,5	1,2	3,6	100,0
Gizonak	52,4	21,1	10,1	4,4	12,0	100,0
Adina						
15-24	52,7	30,1	6,4	4,3	6,4	100,0
25-34	40,5	25,0	12,4	5,8	16,2	100,0
35-54	54,5	23,9	9,6	2,9	9,0	100,0
55-74	79,5	11,8	4,2	1,0	3,5	100,0
Ikasketa-maila						
Ikasketarik gabe edo lehen mailako ikasketak	77,0	7,8	5,1	1,4	8,8	100,0
Bigarren mailako ikasketak	57,6	23,0	8,0	3,1	8,2	100,0
Unibertsitate-ikasketak	50,2	29,8	10,2	3,7	6,2	100,0

Iturria: Adikzioei buruzko EAEko Inkesta, 2017.

3.4. Kalamu-kontsumoan hasteko adina

Kalamu-kontsumoan hasteko batez besteko adina 18,6 urtekoa zen 2017an, eta emakumeak gizonak baino apur bat beranduago hasten ziren kalamua kontsumitzen (18,9 urte eta 18,4 urte, hurrenez hurren). Ia ez da aldatu kalamu-kontsumoan hasteko adina 2006tik.


6. taula. Kalamu-kontsumoan hasteko batez besteko adinaren bilakaera sexuaren arabera (%)

	2000	2002	2004	2006	2008	2010	2012	2017
Gutzizkoa	19,1	18,8	18,0	18,4	19,2	18,8	18,6	18,6
Emakumeak	18,9	19,0	18,0	18,4	19,9	18,9	19,3	18,9
Gizonak	19,2	18,7	18,0	18,4	18,8	18,7	18,1	18,4

Iturria: Adikzioei buruzko EAEko Inkesta.

Adin-taldeei dagokienez, argi ikusten da kalamua kontsumitzeko adina handitu egiten dela zenbat eta adin-taldea nagusiagoa izan, hein batean kalamua lehen aldiz beranduago kontsumitzen hasten diren pertsonak daudelako edo, okertu egin daitezkeen arren, gogoratzen duten hasiera-adina handiagoa delako.

5. koadroa. Kalamua kontsumitzen hasteko batez besteko adina, adin-taldeen arabera, 2017. Biztanleria osorako emaitzak eta sexuaren arabera banatutako emaitzak.




Iturria: Adikzioei buruzko EAEko Inkesta, 2017.

Halaber, gradiente soziala dago ikasketa-mailari dagokionez: zenbat eta handiagoa ikasketa-maila, orduan eta beranduago hasten da kontsumoa. Hain zuzen, bi urteko aldea dago ikasketarik gabe edo lehen mailako ikasketak dituzten herritarren (17,4 urte) eta unibertsitate-ikasketak dituzten biztanleen arteko hasiera-adinean (19,4 urte).

Ikasketa-mailagatiko arrakala nabarmenagoa da gizonetan (2,4 urte) emakumetan baino (1,3 urte), ikasketarik gabeko gizonak lehenago hasten direlako kalamua kontsumitzen. Alabaina, unibertsitate-ikasketak dituzten biztanleen artean, antzekoa da kontsumoan hasteko adina.

6. koadroa. Kalamua kontsumitzen hasteko batez besteko adina, ikasketa-mailaren arabera. Biztanleria osorako emaitzak eta sexuaren arabera banatutako emaitzak.




Iturria: Adikzioei buruzko EAEko Inkesta, 2017.

3.5. Kalamu-kontsumoaren gaineko gizarte-pertzepzioa EAEn

2017an, 15 eta 74 urte bitarteko biztanleen % 62,1ek uste zuen Euskadiko kalamu-kontsumoa nahiko larria edo oso larria zela, eta % 43,6k uste zuen kontsumoa handitu egin zela azkenaldian. % 55,5ak uste zuen hilabetean behin kalamua erretzeak arazo gutxi eragiten dituela edo ez duela arazorik eragiten, eta hori erantzun zutenen proportzioa erdira jaisten zen astean behingo kontsumoari buruz hitz egitean (% 26,9).

Egia da 2008tik aurrera apurka-apurka hasi zela murrizten EAeko kalamu-kontsumoaren larritasunaren pertzepzioa, baina 2017ko emaitzei erreparatuta, esan daiteke joera horri bukaera eman zitzaiola momentu horretan, gizonei eta, batez ere, emakumeei dagokienez. Horrez gain, azken urteotan kalamu-kontsumoa handitu egin den pertzepzioa ere areagotu da. Hori uste zuten, hain zuzen, biztanleen % 33,3k 2012an, eta % 43,6k 2017an. Kasu honetan, ezberdintasuna oso txikia da gizonen eta emakumeen artean. Kontsumoak pertsonen ongizatean duen eraginaren harira, arazo gutxi eragiten dituen pertzepzioa ez da aldatu emakumeen artean, ez hilabetean behingo ez astean behingo kontsumoari dagokienez. Aldiz, gizonen arriskuaren pertzepzioa murriztu egin da, handiagoa delako kontsumo mota horiei arazo gutxi egotzen dieten pertsonen proportzioa.

9. taula. Kalamu-kontsumoari buruzko biztanleen pertzepzioaren bilakaera (%), sexuaren arabera banatuta (%). Adinaren arabera estandarizatutako datuak.



Oharra: Grafiko honetan jasotako proportzioak biztanleria osoa kontuan hartuta kalkulatuta dira.
Iturria: Adikzioei buruzko EAeko Inkesta eta EINen 2017ko urtarillaren 1eko biztanleria-errola.



3.6. Drogen arloko zenbait neurri emandako babes-maila eta beste adikzio batzuk


2017an, EAEko biztanle gehienak kalamuaren erabilera terapeutikoa baimentzearen alde zeuden, besteak beste, minbizia tratatzeko (% 89,4). Alabaina, eztabaida handiagoa pizten dute beste neurri batzuek. Esate baterako, biztanleen erdia (% 52,6) bakarrik dago kalamuaren salmenta legalizatzearen alde, betiere adingabekoei saltzea debekatuz, eta autokontsumorako kalamua kultibatzearen alde (% 51,5).

Bilakaeraren ikuspuntutik, azken ia hamar urteotan (2008-2017) ia ez da aldatu biztanleria helduak kalamuaren legalizazioari (biztanleen % 52), tratamendu medikoetan xede terapeutikoetarako erabiltzeari (% 89), autokontsumorako kultiboa baimentzeari (% 55 eta % 52 artean) eta drogak kalterik jasan gabe kontsumitzeko informazioa emateari (% 72) emandako babesa.

Gizarte-babesa galdu duten neurriak honako hauek dira: droga guztien salmenta legalizatzea, kontsumitzaileei heroína medikoa hornitzea eta kontsumitzeko higijene-baldintza minimoak beteko dituzten lokalak irekitzea.

Azkenik, oso aipagarria da zenbait egiturazko neurri, alkoholaren eta tabakoaren publizitate oro debekatzeak, adibidez, gizarte-babes handiagoa dutela orain (2008an biztanleen % 61,0 zegoen horren alde eta 2017an biztanleen % 73,9).

7. koadroa. Drogen eta adikzioen arloko zenbait neurri emandako babes-maila* (%). EAEko Adikzioei buruzko Inkesta, 2008-2017.



Oharra: Grafiko honetan jasotako proportzioak biztanleria osoa kontuan hartuta kalkulatu dira.

*Neurriekin nahiko ados edo oso ados daudenen %.

Iturria: Adikzioei buruzko EAEko Inkesta.

4. Ondorioak

2017an, kalamua zen oraindik ere EAeko biztanleen artean kontsumo-prebalentziarik handiena zuen legez kanpoko substantzia. Kontsumo-prebalentzia horiek handiagoak dira gizonen kasuan emakumeen kasuan baino, aztertutako kategoria guztietan (esperimentaziorako kontsumoa, azkenaldiko kontsumoa, momentuko kontsumoa eta eguneroko kontsumoa). Sexuaren araberako ezberdintasunak handitu egiten dira erlatiboki zenbat eta prebalentziak berriagoak izan.

Gazteak dira kalamu-kontsumoaren prebalentzia-tasa handiena dutenak, baina nabarmen jaisten da 34 urtetatik aurrera. Ikasketa-mailari dagokionez, esperimentaziorako kontsumoa (noizbait bizitzan zehar) handiagoa da ikasketa-maila altuagoa duten biztanleen artean. Alabaina, egunero kontsumitzen dutenen artean gehiago dira ikasketa-maila baxuagoak dituztenak, sexu bien kasuan. Gauza bera gertatzen da azken 12 hilabeteetan eta azken 30 egunetan kontsumitu duten emakumeen taldean ere.

2006 eta 2012 bitarteko beheranzko joera eta gero, 2017an handitu egin zen kalamuaren esperimentaziorako kontsumoa, baita, neurri txikiagoan bada ere, azkenaldiko kontsumoa (azken 12 hilabeteak) eta momentuko kontsumoa (azken 30 egunak). Eguneroko kontsumoaren gorakadari dagokionez, 2017an gizonen artean hauteman zen, baina ez zion emakumeen kontsumoari eragin.

2017an kalamua bizitzan noizbait kontsumitu dutela adierazi zuten biztanleen proportzioa ia % 40ra iritsi zen arren, intentsitate handiko kontsumoa (100 aldiz baino gehiago) % 7,8ra murrizten da.

Emakumeak gizonak baino apur bat beranduago hasten dira kalamua kontsumitzen (emakumeak 18,9 urterekin eta gizonak 18,4 urterekin, batez beste). Zentzu horretan, ikasketa-mailari lotutako gradientea ikus daiteke: zenbat eta ikasketa-maila altuagoa izan, orduan eta beranduago hasten da kontsumoa. Dena den, harreman hori ez da homoginoa sexuei dagokienez. Unibertsitateko ikasleen hasiera-adina bera da emakumetan eta gizonetan, baina maila apalagoko ikasketak dituztenen taldean, lehenago hasten dira gizonak. Zehazki, gizonak maila bereko emakumeak baino urtebete lehenago hasten dira kontsumitzen.

Kalamu-kontsumoaren gaineko gizarte-pertzepzioari dagokionez, biztanleen % 62,1ek uste du nahiko larria edo oso larria dela. Gainera, biztanleen % 43,6k uste du hazi egin dela kalamu-kontsumoa. Hautemandako arriskuari dagokionez, biztanleen % 55,5ek uste du hilabeteen behin kalamua erretzeak arazo gutxi eragiten duela edo ez duela arazorik eragiten, baina proportzio hori % 26,9ra murrizten da asteko kontsumoari buruz galdetzen zaienean.

Azkenik, biztanleek kalamuarekin zerikusia duten politika publikoen gainean egindako balorazioari dagokionez, bereziki aipagarria da gizartearen gehiengoak babesten duela kalamua minbizia eta beste gaixotasun batzuk tratatzeko erabiltzea baimentzea. 2017an, biztanle gehienak zeuden horren alde (% 89,4). Bilakaerari dagokionez, azken hamar urteotan nahiko egonkor mantendu da kalamuarekin zerikusia duten politika publikoei emandako babesa, eta ez dela aldaketarik egon, droga eta adikzioen arloko beste neurri batzuekin gertatu ez den bezala.

